DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN
Idazkaritza nagusia
Secretaría general
Ijentea, 1 | Tel. 010 - 943481012 | www.donostia.eus
20003 Donostia / San Sebastián

**Doña NAGORE SARASOLA OTERMIN AnD.**

**Donostiako Udaleko Idazkari Nagusia naizen honek**
**Secretaria General del Ayuntamiento de San Sebastián**

**Neuk ziurtatua:**
**Certifico:**

Donostiako Udaleko Bozeramaileen Batzarrak, 2024ko abuztuaren 19an izan zuen ohiz kanpoko eta premiazko bilkuran, erakunde adierazpen hau onartu zuela (lehenengo bi puntuak aho batez eta hirugarrena gehiengoz):

**"Donostian izan den azken erasoaren aurrean egiten dugun adierazpen instituzionala:**

Azken orduetan Donostian izan den erasoaren aurrean Udalak honako hau adierazten du:

*1. Udalak erabateko irmotasunez gaitzesten du gure bizilagunak jasandako erasoa. Gure hirian gertatutako emakumeen aurkako indarkeriak eragindako beste gertaera bat izan da, adingabeen presentziaren astungarriarekin.*

*2. Babesa eta elkartasuna adierazi nahi dio eraso tamalgarri honen biktimari, bai eta bere familia eta hurbileko ingurukoei ere. Udalak indarkeria-egoerak pairatzen dituzten edo pairatu dituzten emakume guztiei jakinarazten die laguntza behar eta nahi izanez gero Udalak dituen zerbitzu eta baliabideetara jo dezaketela.*

*3. Mota honetako erasoak gure gizartean oraindik gertatzen diren emakumeen aurkako indarkeria jarreren adierazpenik higuingarrienak dira eta Udalak guztiz gaitzesten ditu. Ezinbestekoa da lanean jarraitzea balioetan oinarritutako heziketaren eta gizon eta emakumeen arteko berdintasunaren alde. Beharrezkoa da, halaber, azpimarratzea horrelako jarrerak eragiten dituzten faktoreetan egunez egun esku hartzen jarraitu behar dela".* ==========================

Que la Junta de Portavoces del Excmo. Ayuntamiento de San Sebastián, en sesión extraordinaria y urgente celebrada el 19 de agosto de 2024, aprobó, los dos primeros puntos, por unanimidad y el tercer punto *por mayoría*, la siguiente Declaración Institucional:

**"Declaración institucional ante la última agresión en Donostia / San Sebastián:**

Tras la agresión que ha tenido lugar el pasado fin de semana en Donostia / San Sebastián, el Ayuntamiento quiere manifestar:

*1. Su más rotunda condena de la agresión sufrida por nuestra vecina, en un nuevo episodio de violencia contra las mujeres ocurrido en nuestra ciudad, con el agravante de la presencia de menores.*

*2. Su apoyo y solidaridad con la víctima de esta lamentable agresión, así como a sus familiares y entorno cercano. El Ayuntamiento informa a todas aquellas mujeres que sufren o han sufrido situaciones de violencia, que si necesitan y desean ayuda pueden acudir a los servicios y recursos que dispone el Ayuntamiento.*

*3. Este tipo de agresiones son la expresión más repugnante de la violencia contra las mujeres que aún impera en nuestra sociedad y que desde el Ayuntamiento condenamos. Es imprescindible seguir trabajando por la educación en valores y la igualdad entre hombres y mujeres. Y trabajar la educación de sexos para dotarles de habilidades y recursos para gestionarlos. También es necesario insistir en la necesidad de seguir interviniendo día a día en los factores que provocan este tipo de actitudes"* ====================================.

10740n XVII

**IDAZKARI NAGUSIA – LA SECRETARIA GENERAL**

**Nagore SARASOLA OTERMIN**

**ALKATEAK O. E. -**
**V. º B. º DEL ALCALDE:**